BIZKAIA ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2019

# 2019
# Beaz Bizkaia

Ezkutuko indarra
La fuerza oculta



Txapeldunak

## Enpresa konkistatzaileak: txikiak baina liderrak, txapeldunak baina ezkutuan

## Empresas conquistadoras: pequeñas pero líderes, campeonas pero ocultas

“Ezkutuko txapelduna” adiera hiztegia begiratzera eta osatzen duten izen eta izenlagunaren esanahiez hausnartzera eramaten zaituen horietako bat da.

A priori txapelduna izatea eta ezkutuan egotea kontraesana dela dirudi, baina hitzen ñabardurek hasierako ustea aldarazi eta gure ikuspegia zabaltzen dute. Horrela, agerian gelditzen da, esate baterako, “nagusitasuna lortzea” (txapelduna izatea) eta “ikusia eta ohartua ez izatea” (ezkutuan egotea) aukera bateragarriak direla eta definitu beharra zegoela.

Egin zuen lehena Hermann Simon ekonomialaria izan zen, izan ere 1980ko erdialdean ezkutuko txapeldunak erabili zuen munduko merkatua lideratzen duten Alemaniako industria enpresa txikiak deskribatzeko (Mittelstand). “Munduko enpresa ezezagunetariko 500en irakaspenak” izenburua zeukan germaniar herriaren esportatze-indarraz hausnartzen zuen haren lehen liburuak.

Indar hori jendarteak, oro har, izen historikoa duten konpainia handiekin lotzen du, baina indartze horretan ekarpen erabakigarria egiten dute euren sektoreetatik kanpo oharkabean gelditzen diren ehunka enpresa txikik.

Ez gaude geografikoki leku batean kokatuta dagoen fenomeno baten aurrean. Duela zenbait urte nazioarteko azterlan batek hainbat herrialde eta kontinentetako 3000 ezkutuko enpresa txapeldun ikertu zituen. Erreferentzia kuantitatiboak gorabehera, ikerketak agerian jarri zuen lan egiteko eran eta balio-sisteman ezaugarri komun batzuk zituztela.

“Campeona oculta” es una de esas expresiones que te llevan a consultar el diccionario y a mirar las distintas acepciones del nombre y el adjetivo que la forman.

A priori ser campeona y estar oculta suena contradictorio, pero las palabras tienen matices que cambian la impresión inicial y amplían nuestra perspectiva hasta hacernos ver, por ejemplo, que “obtener la primacía” (ser campeona) y “no dejarse ver ni sentir” (estar oculta) son opciones compatibles que había que definir.

Quien primero lo hizo fue el economista Hermann Simon quien, a mediados de 1980, utilizó la expresión campeonas ocultas para describir a las pequeñas empresas industriales alemanas que lideran el mercado mundial (Mittelstand). “Lecciones de 500 de las mejores compañías desconocidas del mundo” tituló su primer libro en el que reflexionaba sobre la fuerza exportadora del país germano.

Una fortaleza que la opinión pública identifica con grandes compañías de nombre histórico, pero a la que contribuyen decididamente cientos de pequeñas empresas que pasan desapercibidas fuera de su sector.





Ezkutuko txapeldunen ezaugarri nagusia da lidergoa dutela txikiak baina oso errentagarriak diren merkatu-hobi txikietan, zeinetan oso lehiakide gutxi dagoen. Lidergo hori dela-eta, etengabe balioa sortzen egon behar dute; horregatik I-Gn egiten duten inbertsioa batezbestekoaren gainetik dago eta langile kopuruaren arabera antolakunde handiek baino patente gehiago erregistratzera heltzen dira.

Enpresa txiki eta dinamikoak dira baina mundua osoan lehiatzen dira. Enpresa konkistatzaileak dira eta industria zorrotzetan aritu-beharraren eta barruko merkatuen muga atzerriko jarduerarekin konpentsatzen dute. Inolako konplexurik gabe doaz merkatu zorrotz edo arriskutsuetara, haien tamainaren arabera espero zitezkeenak baino kuota handiagoak eskuratuz eta ekonomiaren munduko benetako aktore bihurtuz.

Eskualdeko eta familiako enpresak izan ohi dira, batzuetan familiako kide batek zuzenduta, baina sarritan kudeatzaile profesionalak dauzkate, lehiakortasun-eredu irabazleak dituztenak eta euren lanpostuetan hainbat urtetan irauten dutenak. Borondatez apalak dira eta haien emaitzen eta nabarmentasunaren artean desoreka handia dago: ez dute ikusiak eta ohartuak izateko ahaleginik egiten eta hedabideek ez dituzte nabarmentzen.

Haien beste ezaugarri bat bikaintasuna da, barruko lantaldeen ezagutza sakon eta lan onaren, zenbait teknologiatan dituzten gaitasunen, lidergoan jarraitzearen eta bezero zorrotzarengandik hurbil egotearen fruitu.

Epe luzerako ikuspegia, iraupen luzea –azken 25 urteotan gutxi desagertu dira edo erosiak izan dira eta gehienak bizirik atera dira 2008ko krisialditik– edo autofinantziazioa lehenestea ere hizpide luzea eman dezaketen gaiak dira.

Egia esan enpresa hauek antz handia dute gai askotan, eta gai horiek oso interesgarriak dira, izan ere haietako bakoitzak agerian jartzen du arlo bakoitzean ezkutuko txapeldunek duten jokabide burutsua.

Testu honen helburua ez da gai horiek guztiak jasotzea, baina bai agerian jartzea Bizkaiak giltzarritzat jotzen dituenak eta Drive proiektua eta, berarekin batera, gure lurraldeko ezkutuko txapeldunak, bultzarazi dutenak.

Horien artean hiru nabarmentzen dira, bi datuekin egiaztatuak eta Ekonomi Lurralde eta Garapena Sustatzeko Sailaren estrategia osoaren oinarri direnak: Bizkaiaren garapen eta hazkundean betetzen duten papera eta epe luzera enpleguan duten inpaktua; eta beste bat subjektiboagoa baina balio handikoa: inspirazio-iturria izatea.

Ezkutuko txapeldunek, aurretik azpimarratu dugu, esportatu egiten dute, hazkundea daukate eta berritu egiten dute. Balioa sortzen dute eta funtsezko betekizuna dute lurraldearen suspertze ekonomikoan, munduko merkatuetan proiektatzeko daukaten gaitasunarengatik. Txertorik onena dira goiz ala berandu beti heltzen diren ezegonkortasun-garaiei aurre egiteko.

Beste alde batetik, tamainako inpaktua dute lan-merkatuan, kalitatezko lanpostu iraunkorrak sortzen dituzte eta tokiko ekosistema bultzatzen dute, funtsezkotzat jotzen baitute eskualdeko hornitzaile eta startupekiko harremana.

Gainera, inspirazio-iturri dira. Nagusitasuna lortzeko gogo hori (txapeldunak izatea), irmotasuna, eta iraultzaren bainoago bilakatzearen alde egiten duten apustua aintzat hartua izatea merezi duen hazkunde-eredua da.

No estamos ante un fenómeno geográficamente localizado. Hace pocos años un estudio internacional analizaba 3 000 empresas campeonas ocultas de distintos países y continentes. Al margen de referencias cuantitativas, la investigación evidenció varios rasgos comunes en su manera de hacer y en su sistema de valores.

Las campeonas ocultas se caracterizan por su liderazgo en nichos de mercado pequeños pero muy rentables en los que operan pocos competidores. Ese liderazgo les obliga a generar valor constantemente, de ahí que su inversión en I+D sea superior a la media, llegando a depositar más patentes por número de empleados que las grandes organizaciones.

Son empresas pequeñas y dinámicas que se baten a escala mundial. Empresas conquistadoras que compensan el hecho de centrarse en industrias austeras y las limitaciones de sus mercados internos con la actividad en el exterior. Sin complejos acceden a mercados exigentes o arriesgados, haciéndose con cuotas mayores de lo que sugiere su tamaño y convirtiéndose en verdaderos actores mundiales de la economía.

Suelen ser empresas regionales y familiares a veces dirigidas por un miembro de la familia, pero a menudo por gestores profesionales con modelos de competitividad ganadores y que permanecen años en su puesto. Voluntariamente discretas, entre sus resultados y su notoriedad hay un gran desfase: “ni se dejan ver ni sentir” ni son destacadas por los medios de comunicación.

La excelencia, fruto del profundo conocimiento y saber hacer de sus equipos de trabajo, de sus competencias en ciertas tecnologías, de la continuidad en el liderazgo, y de su proximidad a un cliente exigente, son otros de los rasgos que las caracterizan.

La visión a largo plazo, su resilencia –en los últimos 25 años pocas han desaparecido o han sido compradas y casi todas han sobrevivido a la crisis de 2008-, o su preferencia por la autofinanciación, son temas de los que podríamos seguir hablando.

En realidad los puntos en común entre estas empresas son muchos y muy interesantes pues cada uno de ellos abre la puerta a una nueva constatación que evidencia el inteligente proceder de las campeonas ocultas.

No es el objetivo de este texto recoger “todas las que son”, pero sí dejar constancia de las características que Bizkaia considera claves y las que le han llevado a impulsar el Proyecto Drive y, con él, a las campeonas ocultas de nuestro territorio.

Y entre ellas destacan tres, dos que avalan los datos y son la base de toda la estrategia del Departamento foral de Desarrollo Económico y Territorial: el papel que desempeñan en el desarrollo y crecimiento de Bizkaia, y su impacto en la competitividad y el empleo a largo plazo; y una más subjetiva que sin embargo tiene un enorme valor: el ser fuente de inspiración.

Las campeonas ocultas, lo hemos subrayado ya, exportan, crecen e innovan. Crean valor y tienen un papel clave en la reactivación económica del territorio por su capacidad de proyectarse en los mercados mundiales. Son la mejor vacuna frente a épocas de inestabilidad económica que tarde o temprano llegan.

Por otro lado, su impacto en el mercado de trabajo es considerable, generan empleo de calidad y duradero, y estimulan el ecosistema local al considerar esencial la relación con proveedores y startups de la zona.

Son también fuente de inspiración. Su afán por obtener la primacía (ser campeonas), su tenacidad, y esa apuesta por la evolución más que por la revolución, representan un modelo de crecimiento que merece ser tenido en cuenta.

**Ezkutuko txapeldunek funtsezko betekizuna dute lurraldearen suspertze ekonomikoan, munduko merkatuetan proiektatzeko daukaten gaitasunarengatik**

Las campeonas ocultas tienen un papel clave en la reactivación económica del territorio por su capacidad de proyectarse en los mercados mundiales



## Drive proiektua

## Proyecto Drive

**2018an Aldundiak abian jarri zuen Drive – Bizkaiko ezkutuko txapeldunak proiektua, lurraldearen egonkortasun eta hazkunde ekonomikoan funtsezko papera erakutsi duten enpresa hauek hobeto ezagutzeko.**

**Beraien beharrizanak identifikatu nahi genituen eskaintzen dizkiegun laguntza-politikak hobetzeko eta haien arrakastaren oinarria diren estrategiak aztertzeko, hazten ari diren ETEetan aplikatzeko; aldi berean, goraipamen gutxi izan duen haien bikaintasun paregabea errekonozitu nahi genuen.**

**Hauek dira hasieratik bidaide izan ditugun eta Drive proiektua osatzen lagundu diguten 24 enpresak.**

En 2018, la Diputación ponía en marcha el proyecto Drive - Campeonas ocultas de Bizkaia con el fin de conocer mejor a estas empresas que han demostrado tener un papel clave en la estabilidad y crecimiento económico del territorio.

Queríamos identificar sus necesidades para mejorar las políticas de apoyo que ponemos a su disposición y analizar las estrategias que sustentan su éxito para aplicarlas en pymes en crecimiento; también reconocer una excelencia incuestionable, pero parca en distinciones.

Estas son las 24 empresas que nos han acompañado desde el principio y ayudado a dar forma al proyecto Drive.



Drive

### _Baussa
**Familiako enpresa hau 1985ean sortu zen baina aurretik ibilbide luzea zuen metalezko industriaren transformatuetan eta, industria birmoldaketaren ondorioz, segurtasun handiko sektorearentzat kutxa gotorrak fabrikatzeari ekin zion. 90eko hamarkadan sarraila elektronikoak eta softwarea garatzeko inbertitzen hasi ziren eta gaur egun 20 herrialde baino gehiagotan merkaturatzen dituzte beren konponbideak. Haien nazioartekotze-eredua tokiko partnerretan oinarrituta dago, beren merkatuan lehenengo lekuan egotea ahalbidetu dien Estatuko banaketa-eredua errepikatzen saiatuz.**

### _Ona Electroerosión
**1952an sortu zuten hiru anaiak, Estatu Batuetako enpresa baten elektroerosio-patentea ustiatzeko aukera baliatuz. Enpresa hori itxi eta gero ONAk bere teknologia propioa garatzeari ekin zion eta gaur egun suitzar eta japoniar liderrekin lehiatzen da. Produktu errentagarri bati lehentasuna emanez eta eskaintzen duen zerbitzuarekin bereiziz, azken 5 urteotan era egonkorrean haztea lortu du; egun haren fakturazioaren %75-80 atzerriko merkatuetatik dator. Hori, hala ere, ez da oztopoa beren denboraren parte bat ordezko teknologietan dauden joera berriak sistematikoki aztertzeari eman diezaioten.**

### _Ingemat
**Automobilgintzaren sektorean prozesuak automatizatzen espezializatutako ingeniaritza, gaitasun bereiziak dituena erlaitzak tolesteko. Zamudiotik erraldoi globalekin dabil harremanetan eta proiektuak dauzka mundu osoan OEMs eta Tier 1erako; PSA, Seat, Audi, BMW,CIE, Gestamp, Tower... Antolakunde guztia bezeroari begira egotea eta merkatu/bezeroen sarrera eta irteerara egokitzeko malguak eta arinak izateko gaitasunak sektore honetan lehiatzea ahalbidetzen die, David Goliaten kontra bezala.**

### _Prosertek
**Proiektu hau 90eko hamarkadan sortu zuten aita-semeak gogor bai gogor ahalegindu eta gero, itsas azpiegituren Estatuko merkatua zabaltzen ari zen une batean eta aukera eman zion itsasontzien atrakalekuetarako babesak fabrikatzen dituen enpresa honi arin hedatzeko. Ordudanik enpresak erabateko eraldaketa izan du: produktuen dibertsifikazio handia (zorroan produktu teknologikoagoak erantsiz, esate baterako itsasontzietara heltzeko pasabide autopropultsatuak edo itsas terminalak monitorizatzeko sistema oso bat), antolakundearen profesionalizatze sakona eta, nazioartekotze-beharrak bultzatuta, erabateko kultura aldaketa**

### _Melchor Gabilondo
**Eibarren sortu zen familiako enpresa hau gaur egun hirugarren belaunaldia eta 1940 inguruan jaio zen automobilgintza eta industriarako ekipamendu hidraulikoak diseinatu, fabrikatu eta banatzeko helburuarekin. Enpresak ikuspegi internazionalagoa hartu zuen 1950-1960tik, enpresa gehienak oraindik barruko merkatuari begira zeudenean. Ezaugarri honek Melchor Gabilondoren ADNan jarraitu du ordudanik eta %70-75 bitartean atzerriko merkatuetan fakturatzen du, haren produktuak 70 herrialde baino gehiagotan daudelarik.**

### _Antec
**60ko hamarkadan sortu zen jasotze-sektorerako balaztak eta banagailu magnetikoak hornitzeko, inguruko enpresentzat. Egun Antec balaztatze-sistemak diseinatzen dituen ingeniaritza-enpresa bat da eta leku nabarmena du nazioarteko sektore eolikoan, ordezkaritzak izanik Txina, Brasil eta Indian. Gainera, hainbat urtetan elektromagnetismoan *knowhow*a aprobetxatzeko, 90eko hamarkadan sortu zuen atalak gaur egun nazioarteko zientzia azpiegitura nagusien garapenean lan egiten du.**

### _Microdeco
**60ko hamarkadaren hasieran hiru lagunek sortu zuten Microdeco automobilgintza sektorearentzat doitasunezko dekoletajean espezializatu da. Produktu propiorik ez duten arren, lehiakideengandik bereizteko gogoak beren merkatu-hobiko liderretako bat bezala posizionatzea ahalbidetu die. Besteak beste, ingurua zaintzeari ematen dioten garrantziarengatik nabarmentzen dira, etengabe aztertuz teknologia eta merkatuaren joerak eta dibertsifikatzeko aukerak bilatuz.**

### _Mecalbe (MEK Group)
**Haren baliorik handiena erabiltzen dituen teknologiak ezin hobeto menderatzea eta knowhowa da; horrek aukera ematen die bezeroei aholkularitza emateko haien piezak fabrikatzerakoan, horretarako dauden teknikarik interesgarrienak erakutsiz. Ingeniaritzan eta makinerian dituen gaitasun teknologikoak, beraz, bereizgarriak dira. “Egiten duguna egiten dugula, beti munduko onenak izaten ahalegintzen gara”. Helburu hau lortzeko taldean teknologia osagarriak eta enpresak erantsiz joan dira; gaur egun 11 sozietatek osatzen dute zenbait kontinentetan eta beren bezeroei konponbide osoa ematea ahalbidetzen die.**

### _Versa Home
**1946an sortu zen sukaldeko tresneria, dekorazio-gaiak eta jostailuak banatzeko tokiko enpresa bezala eta belaunaldi bat baino gehiagok gogoratzen dituen dendak zabaldu zituen. Hirurogeita hamar urte geroago Versa Homek denboran izandako aldaketetara moldatzen asmatu du. Urtero zenbait bilduma diseinatzeaz gain (sektore honek nobedadeak eskatzen ditu etengabe), badauka nazioarteko erosketa-sare sendo bat eta horrek lehiakorra, malgua eta merkatura heltzen arina izatea ahalbidetzen dio. Haren obsesioa? Lan egiten duen merkatuetan bezeroa ezagutzea, horietako bakoitzean bilatzen ari dena eskaintzeko.**

### _Baussa
Empresa familiar constituida en 1985 pero con una larga trayectoria previa en la industria de transformados metálicos que, con la reconversión industrial, pasó a dedicarse a la fabricación de cajas fuertes para el sector de la alta seguridad. En los años 90 comenzaron a invertir en el desarrollo de cerraduras electrónicas y software, soluciones que actualmente comercializan en más de 20 países con un modelo de internacionalización basado en partners locales, tratando de replicar el modelo de distribución desarrollado a nivel estatal que les ha posicionado como número uno en su mercado.

### _Ona Electroerosión
Constituida en 1952 por tres hermanos que aprovecharon la oportunidad de explotar la patente en electroerosión de una empresa estadounidense. Tras el cierre de esta empresa, ONA se ha centrado en el desarrollo de tecnología propia, compitiendo hoy con líderes suizos y japoneses. Centrada en un producto rentable y aportando un servicio diferencial, ha logrado crecer de manera sostenida en los últimos 5 años; actualmente el 75-80% de su facturación proviene de mercados exteriores. Esto no impide que dediquen parte de su tiempo a vigilar de manera sistemática las tendencias emergentes en tecnologías sustitutivas.

### _Ingemat
Ingeniería especializada en automatización de procesos en el sector de automoción y con capacidades diferenciales en partes de engatillado. Desde Zamudio se codea con gigantes a nivel global, con proyectos en todo el mundo para OEMs y Tier 1 como PSA, Seat, Audi, BMW,CIE, Gestamp o Tower. La orientación de toda la organización al cliente y la capacidad de ser flexibles y rápidos en adaptarse a la entrada y salida de mercados/clientes les permite competir en este sector cual David ante Goliat.

### _Prosertek
Proyecto creado en los 90 con mucho esfuerzo y tesón por parte de un padre y su hijo en un momento de expansión del mercado estatal de infraestructuras marítimas, lo que permitió a esta empresa fabricante de defensas para atraque de buques expandirse con rapidez. Desde entonces, la empresa ha experimentado una transformación total: una potente diversificación en producto (incorporando a la cartera otros más tecnológicos, como pasarelas autopropulsadas de acceso a buques o un completo sistema de monitorización de terminales marítimas), una fuerte profesionalización de la organización, y un cambio cultural total derivado de la necesidad de internacionalizarse.

### _Melchor Gabilondo
De origen eibarrés, esta empresa familiar que actualmente es gestionada por la tercera generación nació allá por 1940 con el objetivo de diseñar, fabricar y distribuir equipamientos hidráulicos para automoción e industria. La empresa adoptó un enfoque más internacional desde los años 50-60, cuando la gran mayoría de empresas se orientaba al mercado interno. Este rasgo se ha mantenido en el ADN de Melchor Gabilondo desde entonces, facturando entre el 70-75% en mercados exteriores y encontrándose sus productos en más de 70 países.

### _Antec
Creada en los años 60 para suministrar frenos y separadores magnéticos para el sector de elevación a empresas del entorno. Hoy Antec es una ingeniería de diseño de sistemas de frenado, con una presencia destacable en el sector eólico internacional y delegaciones en China, Brasil e India. Además, para aprovechar el *knowhow* acumulado durante años en electromagnetismo, en los 90 creó una división que actualmente trabaja en el desarrollo de las principales infraestructuras científicas internacionales.

### _Microdeco
Constituida por tres amigos a principios de los 60, Microdeco se ha especializado en el decoletaje de precisión para el sector de automoción. Aunque no cuentan con producto propio, su obsesión por diferenciarse de la competencia les ha permitido posicionarse como uno de los líderes de su nicho de mercado. Entre otras cosas, destacan por la importancia que conceden a la Vigilancia del entorno, analizando permanentemente tendencias tecnológicas y de mercado, y buscando oportunidades de diversificación.

### _Mecalbe (MEK Group)
Su mayor valor es el absoluto dominio y el conocimiento de las tecnologías que maneja, lo que le permite asesorar a sus clientes a la hora de fabricar sus piezas, aconsejándoles sobre las técnicas más interesantes para ello. Sus capacidades tecnológicas en ingeniería y maquinaria son, por tanto, diferenciales. “Tratamos siempre de convertirnos en los mejores del mundo en lo que hacemos”. Con ese fin han ido incorporando tecnologías complementarias y empresas al grupo, que actualmente está formado por 11 sociedades en varios continentes que le permiten ofrecer una solución global a sus clientes.

### _Versa Home
Nació en 1946 como una empresa de distribución local de menaje, decoración y juguetes, con tiendas emblemáticas en Bizkaia que forman parte del imaginario colectivo de más de una generación. Setenta años después, Versa Home ha sabido adaptarse a los cambios en el tiempo. Además de diseñar varias colecciones al año (es un sector que demanda novedades continuamente), dispone de una consolidada red internacional de compras que le permite ser competitiva, flexible y rápida en su llegada al mercado. ¿Su obsesión? Conocer al cliente final en los mercados en los que opera para poder ofrecerle, en cada uno de ellos, lo que está buscando.

## _Walter Pack

90eko hamarkadaren hasieran jaio zen bokaziozko ekintzaile baten proiektu bezala; hasieran enpresa enbalajearen sektoreari zuzenduta zegoen. 2000ko hamarkadan inbertsio handiak egiten hasi ziren automobilen barruko dekorazioaren arloan funtsezko lau teknologiak menderatzeko. Aldi berean, nazioartean zabaltzeko fase handinahitsu bati ekin zioten. Automobilgintzaren sektorean halako tamaina izateak duen garrantziaz oharturik, eta haren ibilbide bikaina errekonozituz, duela gutxi partaidetza hartu du Walter Pack-en, automobilgintzako osagaien Estatuko enpresa nagusietako bat, automobileko barrualdeen hirugarren hornitzaile globala.

## _Izar Cutting Tools

100 urte baino gehiagoko historia du familiako enpresa honek, XX. mendearen hasieran Zumarragan sortua malgukiak eta baleztak fabrikatzeko. Gorabehera asko izan eta gero XX. mendearen amaieran Izar Cutting Tools sortu zen, jatorrizko marka errebindikatzen zuen enpresa (“gure aktiborik garrantzitsuena”), nortasun handikoa eta hamarkadatan gauzak egiteko bildutako jakintza eskuratuta. Ordudanik esklusiboki kalitate handiko ebakitze-erremintak fabrikatzeari ekin dio eta nabarmentzen da erabat bezeroari begira egoteagatik eta malgutasuna bilatzeagatik, gero eta arinagoa izateko eta serie laburragoak errentagarritasunarekin lortzeko.

## _Grupo Arruti

Industrias Arruti 1968an sortu zen galdategi bezala tentsio baxuko linea elektrikoetarako materiala fabrikatzeko. Hasieran konpainia elektriko handien enpresa hornitzaileei eman zien lehentasuna. 80ko hamarkadaren erdialdean, eta helburuko bezeroari saltzeko urratsa egin eta gero, Arruti erabat aldatu zen. Bere historian zehar, zeuden aukerak eta sinergiak aprobetxatuz, eta bezeroek beraiek animaturik, taldean enpresa berriak erantsiz joan da: Arruti subestaciones, Arruti aleaciones eta Arruti catenaria. Gaur egun badauzka proiektuak Latinoamerikan, Afrikako iparraldean eta Europan, eta esportazioak haren negozioaren %70 dira.

## _Dibal

1985. urtean sortu zen, izan ere orduan merkataritza balantzak fabrikatzen hasi ziren ingeniaritza elektroniko eta komunikazioen arloan ospe handia zuen Novatronic taldearen barruan. Novatronic eta Dibalen jakintza elkartuz 1986an produktu aitzindari bat merkaturatu ahal izan zuten: ordenagailuarekin komunikatzeko sistemaz hornituta zegoen balantza elektronikoa. Egun, 34 urte geroago, adituak dira merkataritza eta industria sektoreentzat pisatze- eta etiketatze-konponbideak ematen eta badauzkate fabrikak Derio, Bartzelona eta Txinan, Mexikoko ordezkaritzaz gain. Gutxi gorabehera Estatuko merkatu-kuotaren %60 kontrolatzen dute retail-balantzetan, baina azken urteotan izan duten hazkundea (%10 eta 15 bitarteko tasak 2012tik) atzerriko merkatuaren zabalkundeari esker izan da.

## _Itsaskorda

Enpresa hau 90eko hamarkadaren hasieran sortu zen eta haren jarduera nagusia, hasieran, EAEko arrantza-portu nagusietako arraste-itsasontzietarako maileta saltzea zen. Gaur egun tokiko bi portutan sokak saltzen hasi zen familiako enpresa txiki honek bere banaketa-sarea 5 kontinenteetako 26 herrialde baino gehiagotara zabaldu du. Sokak eta lotzeko gaiak garatu, fabrikatu eta merkaturatzen dituzte arrantza-sektorearentzat, akuikultura, haur-jolasparke, nekazaritza eta abeltzaintzarako. Beren lehiakideengandik bereizten dira konponbide berriak garatzeko duten bizkortasunarengatik. Beren bezeroengandik oso hurbil, beren I+Ga hauek ezartzen dizkieten erronkei erantzuna ematen oinarritzen dute.

## _Celulosas Vascas

Enpresa hau 1981ean sortu zen Erandion, gaur egun erabili eta botatzeko produktuen inportatzaile eta banatzaile nagusietako bat da Europan marka propioarekin eta esperientzia zabala dauka osasun eta industria sektoreetan. Haren estrategiak lehentasuna ematen die enpresako pertsonei eta kaudimenari; hain zuzen ere kaudimen horri esker inbentario handia eduki ahal du eta bere bezeroei zerbitzu-maila bikaina eskain diezaieke. Ahalegin handia egiten dute lehiakortasunaren zaintzan eta horrek aukera ematen die produktu-bilduma berriztatzeko eta azken nobedadeak arin eransteko.

## _Biolan Microbiosensores

2006an sortu zen bioteknologia oinarriko enpresa hau erreferentzia bihurtu da nekazaritzako elikagaien sektoreari aplikatutako teknologia analitikoan, elikagaien kalitatea eta segurtasuna kontrolatzeko biotsentsoreak garatuz. Azken 7 urteotan urtero batez beste %30 inguruko hazkundea izan dute. Gehikuntza horri eusteko oinarria bi estrategiaren konbinaketa da: ahalegin handia nazioartekotzeko (Indonesia, Tailandia, Mexiko, Txile, Ekuador...), eta garapen teknologiko eta I+Gren bidez bereiztea.

## _Burdinola

Enpresa hau 1978an sortu zen laborategi eta eskolako altzariak diseinatu eta fabrikatzeko. Gaur egun espezialistak dira laborategien planifikazio, integrazio eta instalazioan eta badute produktu propioa. Konponbideen hornitzaile orokorrak izateagatik nabarmentzen dira eta beren bezeroei eskaintzen dieten balio-proposamenean proiektuaren kudeaketa eta garapen oso dago, edozein fasetan eta ikuspegi globalarekin. Esportazioak guztizko salmenten %50 inguru dira eta kopurua handitzea aurreikusten dute Europan, Latinoamerikan eta Ekialde erdian duten nazioarteko merkataritza sare zabalari esker.

## _Walter Pack

Nació a principios de los 90 como proyecto de un emprendedor vocacional; inicialmente la empresa estaba enfocada al sector del embalaje. En los años 2000 empezaron a hacer importantes inversiones para dominar las cuatro tecnologías clave en el ámbito de la decoración de interior de automóviles. A la vez, iniciaron una ambiciosa fase de expansión internacional. Conscientes de la importancia que supone tener cierto tamaño en el sector de la automoción, recientemente ha entrado a participar en Walter Pack, una de las principales empresas estatales de componentes de automoción, tercer proveedor global de interiores del automóvil.

## _Izar Cutting Tools

Más de 100 años de historia contemplan a esta empresa de origen familiar que se creó a principios del siglo XX en Zumárraga para dedicarse a la fabricación de muelles y ballestas. Tras numerosas vicisitudes, a finales del siglo XX nació Izar Cutting Tools, empresa que reivindicaba la marca original (“nuestro activo más importante”), una identidad muy marcada, y un saber hacer acumulado durante décadas. Centrada desde entonces en la fabricación exclusiva de herramientas de corte de gran calidad, destaca por su total orientación al cliente y por la búsqueda de una flexibilidad que le permita ser cada vez más rápida y adaptarse a la fabricación de series más cortas con rentabilidad.

## _Grupo Arruti

Industrias Arruti fue creada en 1968 como fundición para fabricar material para líneas eléctricas de baja tensión. Inicialmente se centró en empresas proveedoras de grandes compañías eléctricas. Hacia mediados de los 80 y tras dar el paso a la venta al cliente final, Arruti se transformó completamente. A lo largo de su historia, aprovechando las oportunidades y sinergias existentes y animado por sus propios clientes, ha ido incorporando nuevas empresas al grupo: Arruti subestaciones, Arruti aleaciones y Arruti catenaria. Actualmente cuenta con proyectos en Latinoamérica, el norte de África y Europa, y las exportaciones suponen el 70% de su negocio.

## _Dibal

Su origen se remonta a 1985, año en el que comenzaron a fabricar balanzas comerciales como parte del Grupo Novatronic, reconocido por sus actividades en el campo de la ingeniería electrónica y las comunicaciones. La conjunción del conocimiento de Novatronic y de Dibal, permitió el lanzamiento en 1986 de un producto pionero: la balanza electrónica dotada de un sistema de comunicaciones a ordenador. Hoy, 34 años más tarde, se definen como expertos en soluciones de pesaje y etiquetado para los sectores del comercio y la industria, y cuentan con fábricas en Derio, Barcelona y China, además de una delegación en México. Controlan aproximadamente el 60% de la cuota de mercado estatal en balanzas retail, si bien en los últimos años su crecimiento (con tasas entre el 10 y el 15% desde 2012) se debe a la expansión del mercado exterior.

## _Itsaskorda

Empresa creada a principios de los 90 cuya actividad se centraba, originariamente, en la venta de malleta para barcos de arrastre de los puertos pequeros de referencia de la CAPV. Actualmente, esta pequeña empresa familiar que empezó vendiendo cabos en dos puertos locales ha ampliado su red de distribución a más de 26 países de los 5 continentes. Desarrollan, fabrican y comercializan cuerdas y elementos de agarre para el sector de la pesca, acuicultura, parques infantiles, agricultura y ganadería. Se diferencian de sus competidores por la agilidad en el desarrollo de nuevas soluciones. Muy cercanos a sus clientes, basan su I+D en dar respuesta a los retos que estos les plantean.

## _Celulosas Vascas

Empresa fundada en 1981 en Erandio, actualmente es una de las principales importadoras y distribuidoras de productos desechables con marca propia de Europa, con amplia experiencia en el sector sanitario e Industrial. Su estrategia prioriza a las personas y la solvencia de la empresa, una solvencia que les permite tener un elevado inventario y ofrecer un alto nivel de servicio a sus clientes. Dedican importantes esfuerzos a la Vigilancia competitiva, lo que posibilita la renovación de su gama de productos y la incorporación de las últimas novedades con premura.

## _Biolan Microbiosensores

Empresa de base biotecnológica creada en 2006 que se ha convertido en una referencia en tecnología analítica aplicada al sector agroalimentario, mediante el desarrollo de biosensores para el control de la calidad y la seguridad alimentaria. En los 7 últimos años han presentado medias de crecimiento anuales que rondan el 30%. Un incremento que se sustenta en la combinación de dos estrategias: un esfuerzo intensivo en internacionalización (Indonesia, Tailandia, México, Chile, Ecuador...), y la diferenciación a través de desarrollos tecnológicos y de I+D.

## _Burdinola

Empresa fundada en 1978 para el diseño y fabricación de muebles de laboratorio y escolar. Actualmente se posicionan como especialistas en la planificación, integración e instalación de laboratorios, contando con producto propio. Se distinguen por ser proveedores integrales de soluciones, ofreciendo a sus clientes una propuesta de valor que implica la gestión y el desarrollo completo del proyecto, en cualquiera de sus fases y desde una visión global. Las exportaciones suponen alrededor del 50% de sus ventas totales, cifra que prevén aumentar gracias a su amplia red comercial internacional en Europa, Latam y Oriente medio.







## _GHI Hornos Industriales

1937an sortu zen familiako enpresa honek industria labeak diseinatu eta fabrikatzen ditu edozein metal urtzeko, tratamendu termikoa emateko edo berotzeko. Beren tresnei 4.0. teknologia eransten diete eta horrek aukera ematen die akatsak ohartzeko, erabilera hobetzeko urgazpena emateko eta mantentze-lanak era prediktiboan planifikatzeko. Azken helburua ustekabeko geldialdiak izateko arriskua gutxitzea eta beren instalazioen potentziala handitzea da. 1950. urtetik esportatzen dute eta gaur egun 17 herrialde baino gehiagotan daude.

## _Virtualware

2004n hiru informatika ingeniarik sortua, Virtualware errealitate birtualean eta bideojoko serioetan lan egin zuen lehenengo enpresetariko bat izan zen. Gaur egun errekonozituak dira hainbat sektoretan aplika daitezkeen teknologia inmertsibo eta elkarreragileetan oinarritutako neurrirako produktu eta konponbideen garapenean. Balio erantsi handiko konponbideak eskaintzen dituzte Estatuan, Erresuma Batuan eta Mexikon dauzkaten bulegoen bidez eta nazioarteko partner-sarearen bitartez.

## _Zunibal

Familiako enpresa hau 80ko hamarkadan sortu zen Txorierrin. Duela 20 urte ari dira produktu eta zerbitzu elektronikoak garatzen itsas sektorean aplikatzeko, ikerketa eta diseinu propioetan oinarrituta. Aitzindariak dira arrantzari aplikatutako satelite bidezko komunikazioak erabiltzen eta I+G+b atal garrantzitsua dute sektorearen iraunkortasuna erraztu eta hobetuko duten produktu berrien garapen eta berrikuntzan. Beren guztizko fakturazioaren %80 inguru esportatzen dute eta atunaren arrantzan garrantzia duten herri guztietan: Ekuador, Panama, Ghana, Senegal, Marfileko Kosta, Seychelles, Filipinak, Taiwan, Korea, Japonia, Espainia...

## _Heroslam

1942tik adituak dira finkatze-elementuak ekoizteko ijezketa bidezko hariztatze-tresnak diseinatzen eta fabrikatzen, automobilgintza, aeronautika, energia eta zurgintza bezalako sektoreetarako. 75 urte baino gehiagoko esperientzia dutelarik, haren produktuen kalitate, doitasun eta iraunkortasuna mundu osoan errekonozitzen dute zorroztasun handiko hariak behar dituzten torloju eta piezen fabrikatzaileek. Horri eta ezagutza partekatzeko eta bezeroei aholkularitza emateko prestutasunari esker, lider bihurtu dira beren hobian. 1985ean atzerrian saltzen hasi ziren; egun haien fakturazioaren %85a esportazioetatik dator, bereziki haien merkatu nagusia den AEBetatik.

## _Fluytec

Aurten 40 urte beteko dira zentral nuklearren sektorean esperientzia zabala zeukan sortzaileak enpresa sortu zuenetik. Hasieran Fluytec-ek iragazte-gaiak fabrikatzeari ekin zion. 90eko hamarkadaren erdialdean kartutxo propioak fabrikatzen eta negozioa dibertsifikatzen hasi ziren, uraren gatzgabetze eta garbitzearen arloan sartuz. 2010etik aurrera teknologia berriak garatzeari eta produktuen diseinuari eman zieten garrantzi nagusia. Erabaki bion ondorioz, gaur egun beren ekoizpenaren %90 esportatzen dute eta konponbide pertsonalizatuak eskaintzen dizkiete mundu osoko bezeroei.

## _P4Q Electronics

Enpresa hau 1999an sortu zuten Alonsotegin Ericssonetik zetozen ingeniari batzuek, aurretiaz produktu elektronikoen eta telefonia mugikorraren fabrikazioan esperientzia zabala zutelarik. Lehenengo etapa enpresei produktuak banatzen eman eta gero, produktu eta sistema elektroniko propioak diseinatzea eta fabrikatzea erabaki zuten. Lehenengo eta behin eguzki sektorean hasi ziren, ondoren automobilgintza, trengintza, aeroespaziala, smart citiak eta eskakizun tekniko handiko beste industria eremu batzuk etorriko ziren. Gaur egun nazioartean zabalduta daude Estatu Batuetan eta Txinan eta beren produktuak 12 herrialde baino gehiagotan hornitzen dituzte.

## _La Magdalena

La Magdalena 1957an sortu zen eta berehala lider bihurtu zen cardan giltzaduraren bidezko transmizio-ardatzen fabrikazioan. Haren ekoizpena batez ere nekazaritza sektoreari zuzenduta dago eta erantzuna ematen diete oinarrizko ekipoen fabrikatzaileei zein banaketa-merkatuari. Haren historian aurrera eraman duten ezaugarri bi egon dira beti: bere bezero eta hornitzaileengandik oso hurbil egotea eta etengabe hazteko gogoa. 1969an jada esportatzeari ekin zioten eta gaur egun familiako enpresa hau lau kontinentetan eta 60 herrialde baino gehiagotan dago.

## _GHI Hornos Industriales

Empresa familiar fundada en 1937, dedicada al diseño y fabricación de hornos industriales de fusión, tratamiento térmico o calentamiento de cualquier metal. Dotan sus equipos con tecnología 4.0., lo que les permite identificar anomalías, proporcionar asistencia de mejora de uso, y planificar de forma predictiva intervenciones de mantenimiento. Todo ello con el objetivo de reducir el riesgo de paradas inesperadas y maximizar el potencial de sus instalaciones. Exportan desde 1950, teniendo actualmente presencia en más de 17 países.

## _Virtualware

Fundada en 2004 por tres ingenieros informáticos, Virtualware fue una de las primeras empresas dedicadas a la realidad virtual y los videojuegos serios. Actualmente son reconocidos como especialistas en el desarrollo de productos y soluciones a medida basadas en tecnologías inmersivas e interactivas, aplicables a diferentes sectores. Ofrecen soluciones de alto valor añadido, a través de sus oficinas en España, Reino Unido, México, y su red de partners internacionales.

## _Zunibal

Empresa familiar fundada en los 90 en el Txorierri. Llevan veinte años desarrollando productos y servicios electrónicos para su aplicación en el sector marino, basados en la investigación y diseños propios. Pioneros en la utilización de las comunicaciones satelitales aplicadas a la pesca, disponen de un importante departamento de I+D+i que trabaja en el desarrollo e innovación de nuevos productos que faciliten y mejoren la sostenibilidad en el sector. Exportan alrededor del 80% de su facturación total y tienen presencia en todos los países con relevancia en pesca de atún: Ecuador, Panama, Ghana, Senegal, Costa de Marfil, Seychelles, Filipinas, Taiwan, Corea, Japon, España...

## _Heroslam

Desde 1942 son expertos en el diseño y fabricación de herramientas de roscado por laminación para la producción de elementos de fijación destinados a sectores como automoción, aeronáutica, energía y madera. Con más de 75 años de experiencia, sus productos tienen una calidad, precisión y durabilidad que es reconocida por tornillerías y fabricantes de piezas con rosca de alta exigencia de todo el mundo. Eso y la disposición a compartir su conocimiento y asesorar a sus clientes, les han convertido en líderes en su nicho. En 1985 empezaron a vender en el exterior; hoy, el 85% de su facturación procede de las exportaciones, especialmente a EEUU, su principal mercado.

## _Fluytec

En marzo de este año hará 40 años que su fundador, con una extensa trayectoria en el sector de las centrales nucleares, creó la empresa. Inicialmente Fluytec se dedicó a la distribución de elementos filtrantes. A mediados de los 90, comenzaron a fabricar cartuchos propios y a diversificar el negocio, entrando en el ámbito de la desalación y depuración de aguas. A mediados de los 2000 dieron el salto de empresa local a global. A partir de 2010 se centraron en el desarrollo de nuevas tecnologías y el diseño de producto. Como consecuencia de ambas decisiones, hoy exportan el 90% de su producción y ofrecen soluciones personalizadas en todo el mundo.

## _P4Q Electronics

Empresa fundada en 1999 en Alonsotegi por ingenieros procedentes de Ericsson con amplio conocimiento en la fabricación de productos electrónicos y telefonía móvil. Tras una primera etapa dedicada a la distribución de productos a terceros, decidieron centrarse en el diseño y fabricación de productos y sistemas electrónicos propios. Su primera incursión fue en el sector solar, después llegaron la automoción, el ferrocarril, el aeroespacial, las smart cities, y otros ámbitos industriales con altos requerimientos técnicos. Hoy tienen presencia internacional en Estados Unidos y China, y suministran sus productos a más de 12 países.

## _Transmisiones La Magdalena

La Magdalena fue fundada en 1957, convirtiéndose rápidamente en líder de fabricación de árboles de transmisión a cardan. Su producción se centra en el sector agrícola, dando respuesta tanto a fabricantes de primeros equipos como al mercado de distribución. En su historia hay dos constantes que la han hecho avanzar: una gran proximidad con sus clientes y proveedores, y un afán de crecimiento constante que les llevó, ya en 1969, a iniciar su actividad exportadora. Hoy esta empresa familiar está presente en cuatro continentes y más de 60 países.



Bizkaiko Foru Aldundiak beste urrats bat egin du lurraldeko enpresen lehiakortasuna indartzeko eta ezkutuko txapeldunen definizioan sar daitezkeen ETE guztiak aurkitzeko asmoa azaldu du. Hau da, merkatu-hobi bereziak globalki lideratzeagatik nabarmentzen diren enpresak.

Imanol Pradales, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuak ziurtatzen duenez, 2016an sortu zen inbertsio, berrikuntza eta nazioartekotzerako 3i diru-laguntza programaren emaitza onak ikusita, Sailak hurrengo urratsa egitea erabaki du, ondo posizionatuta dauden enpresei laguntzeaz gain, Bizkaiko ezkutuko txapeldunen masa kritikoari ahal den etekinik handiena ateratzeko. Horixe egiten ari da jada Drive proiektuaren bitartez.

La Diputación Foral de Bizkaia lleva un paso más allá su apuesta por reforzar la competitividad de las empresas del territorio y se ha propuesto dar con todas las pymes con potencial para entrar en la definición de campeonas ocultas, es decir, aquellas pymes que se caracterizan por liderar globalmente nichos de mercado singulares.

El diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, asegura que la buena marcha del 3i, el programa integral de ayudas a la inversión, innovación e internacionalización creado en 2016, ha llevado al departamento a dar el siguiente paso para, no sólo apoyar a las empresas que ya están bien posicionadas, sino contribuir a maximizar la masa crítica de campeonas ocultas en Bizkaia. Ya lo está haciendo; a través del proyecto Drive.

**Imanol Pradales**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua
Diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial





“Nazioarteko merkatu-hobietan lider diren Bizkaiko enpresen potentziala agerian jarri nahi dugu. Gure ezkutuko txapeldunak dira horiek”.

“Queremos hacer emerger el potencial de empresas líderes en nichos de mercado internacionales con el que cuenta Bizkaia. Son nuestras campeonas ocultas”.

**Zergatik da garrantzitsua horrelako enpresei laguntza ematea?**
Ziklo ekonomiko desberdinetan potentzial handia duten enpresak identifikatzea, zalantzarik gabe, epe luzera lurralde batean aberastasuna, kalitatezko lanpostuak eta ongizatea sortzeko erarik onena da. Zenbait azterlanetan agertzen denez eta adituek egindako kalkuluen arabera, Europan ezkutuko txapeldunen ezaugarriak betetzen dituzten kapitalizazio txiki eta ertaineko 1000 enpresa baino gehiagok osatzen duten unibertsoa dago. Haien tamaina, espezializazioa, merkatu-hobi bateko lidergoa, eta kapitalizazio txikia dira ekonomiaren gorabeheretan babes handiagoa ematen dietenak eta, bidenabar, erakargarritasun gehiago egon daitezkeen inbertsiogileei begira. Enpresa hauek biziki interesatzen zaizkigu, hazkunde egonkorra eta itzulkin osatua eskaintzen dutelako. Halaber, lurraldearen ikuspegitik, honelakoxe enpresok izateak erakargarriago egiten du Bizkaia eta gure lehiakortasuna dinamizatzeko aukera ematen du.

**Gure ekonomian mota horretako enpresa asko dago?**
Lehiakortasunaren Euskal Institutuaren arabera, Euskadik duen ratioa, gutxi gorabehera, 14 ezkutuko txapeldun milioi biztanle bakoitzeko da. Hori zer den konturatzeko, esate baterako Suitzak, Austriak eta Alemaniak duten ratioa 14 eta 16 bitartean dabil. Esan daiteke Bizkaia eta Euskadi inguru emankorra direla merkatu-hobien liderrentzat: ezkutuko txapeldunentzat.

**Zergatik erabaki zen erreferentziatzat enpresa-profil hau hartzea Drive proiektuan?**
Estrategikoa da. 3i programa berritzailea izan da sortu zenetik bertatik, lehiakortasunaren hiru palankei laguntza integrala emateko ezarri baitzen. Gainera, oso tresna eraginkorra da Bizkaiko Foru Aldunditik enpresa horiek aurkitu ahal ditzagun, gaur egun ezagunenen artean ez dauden arren epe ertainean nazioarteko benetako erreferenteak bihur daitezkeenak. Epe ertainean Bizkaiko ekonomiaren motorra izan daitezkeen enpresei buruz ari gara.
Argi dago, lehen begiratuan, multinazional handiak direla kanpoko edozein analisigileren arreta erakartzen dutenak, baina ez dugu neoi-argiekin liluratu behar. Bizkaiko ekonomiaren nolakotasuna eta gure enpresa-sarearen tipologia kontuan hartuz, zalantzarik gabe geure burua ezkutuko txapeldunen ispiluan ere begiratu behar dugu.
Gure helburua Bizkaiko ezkutuko txapeldunen masa kritikoari ahal den etekinik handiena ateratzea da, etorkizuneko erreferenteak izango direlako. Baina ezin gara gelditu itxaroten hau berez gerta dadin; administrazio bezala benetan gauzatzeko ahaleginak egin behar ditugu.

**Zer espero duzue proiektu honetatik?**
Handinahitsuak gara. Dagoeneko ezkutuko txapeldun egoeran dauden enpresak finkatzen jarraitu nahi dugu eta, aldi berean, potentziala dutenei lehiakortasun-maila handiagoa lortzen lagundu nahi diegu. Bizkaian honelako enpresen kontzentrazioa handitzeko lanean ari gara.

**Nola lortu nahi duzue hori?**
Pausoz pauso. Lehenengo fasean, enpresa-lagin baten jokabidezko profilen azterketa egiteari ekin diogu. Helburua enpresa hauek gaur egun duten posizionamendura nola eta zergatik heldu diren ulertzea da.
Ezagutza horretatik abiatuta, aldi berean bi bide jorratu nahi ditugu: alde batetik, enpresa-profil honi laguntza emateko bideak aztertuko ditugu, ezkutuko txapeldunak izaten jarrai dezaten. Bestetik, enpresa berriei laguntza emateko geure laguntza-politiketan proiektu honen ondorioz identifikatu diren enpresa-jokaerak lehenesten ahaleginduko gara.

**¿Por qué es importante apoyar a este tipo de empresas?**
Identificar empresas con alto potencial en ciclos económicos diversos es, sin lugar a dudas, el mejor modo de generar riqueza, empleo de calidad y bienestar a largo plazo para un territorio. Diversos estudios y expertos calculan que en Europa hay un universo formado por más de 1 000 compañías de pequeña y mediana capitalización que cumplen con las características de las campeonas ocultas. Su dimensión, especialización, liderazgo en un nicho de mercado y pequeña capitalización, es lo que les otorga una mayor protección ante los vaivenes de la economía y, paralelamente, mayor atractivo ante los posibles inversores. Son compañías que nos interesan mucho porque ofrecen un crecimiento estable y un retorno compuesto. Desde un punto de vista territorial, además, contar con esta tipología de empresas también redunda en un mayor atractivo para Bizkaia y permite dinamizar nuestra competitividad.

**¿Es abundante la presencia de este tipo de empresas en nuestra economía?**
Según el Instituto Vasco de Competitividad, Euskadi cuenta con una ratio de aproximadamente 14 campeonas ocultas por cada millón de habitantes. Para hacernos una idea, Suiza, Austria y Alemania tienen ratios de entre 14 y 16. Puede decirse que Bizkaia y Euskadi es un entorno fértil para líderes de nichos de mercado, para campeonas ocultas.

**¿Por qué se decide tomar como referencia a este perfil de empresas en el proyecto Drive?**
Es estratégico. El 3i ha sido un programa innovador en su concepción, ya que planteaba un apoyo integral a las tres palancas de la competitividad. Y una herramienta muy eficaz para que desde la DFB podamos descubrir a estas compañías, que si bien hoy aún no están entre las más conocidas, pueden convertirse en auténticos referentes internacionales a medio plazo. Estamos hablando de empresas llamadas a ser el motor de la economía de Bizkaia en el medio plazo.
Es evidente que a simple vista, las grandes multinacionales son las que atraen el interés de cualquier analista económico externo, pero no hay que sucumbir a las luces de neón. Por la naturaleza de la economía de Bizkaia, y la tipología de empresas que forman nuestro tejido, es evidente que el de las campeonas ocultas es uno de los espejos en el que también debemos mirarnos.
Nuestro objetivo es maximizar la masa crítica de campeonas ocultas en Bizkaia, porque van a ser los referentes del futuro. Pero no podemos esperar a que esto ocurra de forma espontánea, como administración debemos intentar provocar que ocurra.

**¿Qué esperan de este proyecto?**
Somos ambiciosos. Queremos seguir afianzando a las empresas que ya se encuentran en una posición de campeona oculta y, además, ayudar a aquellas pymes de potencial a llegar a obtener un mejor nivel competitivo. Estamos trabajando para aumentar la concentración de este tipo de empresas en Bizkaia.

**¿Cómo pretenden lograrlo?**
Paso a paso. En una primera fase, hemos avanzado en el análisis de perfiles de conducta de una muestra inicial de empresas. La idea es llegar a entender cómo y por qué estas empresas han llegado al posicionamiento que en la actualidad tienen.
De este conocimiento pretendemos abordar dos caminos en paralelo: por una parte evaluaremos vías de apoyo a este tipo de empresas para que sigan avanzando en su perfil de campeonas ocultas. Y por otra parte, intentaremos priorizar en nuestras políticas de apoyo a nuevas empresas aquellos comportamientos empresariales que se hayan identificado como resultado de este proyecto.

ON Bizkaia Sariek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailak bultzatzen dituen -Beazek kudeaketan parte hartzen du- programen laguntza jasotzen duten proiektuak goraipatzen dituzte urtero.
Jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzeko aurreikuspenak betetzea da balorazioetan pisu handiena duen irizpidea, baina proiektuen interesgarritasun eta berezitasuna ere aintzat hartzen dira.

Los premios ON Bizkaia son un reconocimiento a los proyectos que cada año cuentan con el apoyo de los programas que impulsa el Departamento foral de Desarrollo Económico y Territorial en cuya gestión colabora Beaz.
El cumplimiento de las previsiones de generación de actividad económica y empleo es el criterio que mayor peso tiene en las valoraciones, aunque el interés de los proyectos y su singularidad son también tenidos en cuenta.

**BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Laip makina-erremintetarako euskarriak fabrikatzen dituen familiako enpresa bat da. Belaunaldiz belaunaldi egin dute jarduera hori, 1957an Ermuan lantegi txiki bat ireki zutenetik. Beti beren sektoreko abangoardian, atzo teknikarik tradizionalenak menderatzen bazituzten egun espezialistak dira digitalizazio-teknologietan, zehazkiago fabrikazio eranskor eta 2D inprimaketan. Gaur egun Abadiñon kokatuta dagoen enpresak 30 langile dauzka, 9000 erreferentzia ditu bere produktu-eskaintzan eta 45 herrialdetan dago.

**PREMIO PROYECTO DE INNOVACIÓN**
Laip es una empresa familiar dedicada a la fabricación de portas para máquinas-herramientas. Una actividad que han desarrollado de generación en generación, desde que en 1957 abriesen un pequeño taller en Ermua. Siempre en la vanguardia de su sector, si ayer dominaban las técnicas más tradicionales de producción hoy son especialistas en tecnologías de digitalización y, más en concreto, en fabricación aditiva e impresión 3D. Ubicada actualmente en Abadiño, la empresa cuenta con una plantilla de 30 personas, incorpora 9000 referencias a su gama de productos, y está presente en 45 países.

**NAZIOARTEKOTZE PROIEKTU SARIA**
1986n Arrankudiagan sortu zen familiako enpresa honek ekipo-ondasunak fabrikatu eta merkaturatzen ditu tentsio baxuko banaketa elektrikorako. I+G+b-ari ematen dioten lehentasunaren ondorioz lider dira beren sektorean eta zabalkunde-prozesu bati ekin diote. Gaur egun merkataritza ordezkaritza dute 60 herrialde baino gehiagotan eta bulegoak Argentina, Dubai, Alemania eta Polonian, eta Australiako merkatuan sartu berri dira. Nazioartean egindako salmentek estatuan lortutakoak bikoizten dituzte.

**PREMIO PROYECTO DE INTERNACIONALIZACIÓN**
Empresa familiar creada en 1986 en Arrankudiaga y dedicada a la fabricación y comercialización de bienes de equipo para la distribución eléctrica de baja tensión. La prioridad que conceden a la I+D+i les ha llevado a ser líderes en su sector y a afrontar un proceso de expansión. Actualmente tienen representación comercial en más de 60 países, oficinas en Argentina, Dubai, Alemania y Polonia, y acaban de entrar en el mercado australiano. Las ventas en el ámbito internacional doblan ya las obtenidas en el estatal.





**ENPRESEN SORKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Hamar urte baino gehiagotan farmazia industrian lortutako esperientziatik duela 3 urte The Art of Discovery sortu zen. Haren helburua zahartzea geldotu eta gure bizi-kalitatea hobetuko dituzten farmako eta sendagaiak ikertzea da, hondamendi-gaixotasunak ere gelditu, besteak beste tuberkulosia eta malaria. Arlo honetan egindako ikerketen ondorioz Bill Gates fundazioaren laguntza jaso dute. Ez da jaso duten mundu-mailako errekonozimendu bakarra; gaur egun bezeroak dituzte AEB, Japonia, India eta Australian.

**PREMIO PROYECTO DE CREACIÓN DE EMPRESAS**
De la experiencia adquirida durante más de una década en la industria farmacéutica nació hace 3 años The Art of Discovery. Su objetivo es investigar fármacos y medicamentos que ralenticen el envejecimiento y mejoren nuestra calidad vida, y que frenen las enfermedades denominadas catastróficas, entre ellas la tuberculosis y la malaria. Sus investigaciones en este campo le han valido el apoyo de la Fundación Bill Gates. No es su único reconocimiento mundial, actualmente cuentan con clientes en EEUU, Japón, India y Australia.

**BIZKAIA SORTZAILEA PROIEKTU SARIA**
Artisau-lana, kalitatezkoa eta diseinu propioarekin. Horrelaxe definitzen du bere burua Mérculesek, eskuz egindako larruzko osagai esklusiboak egin eta luxu eskuragarria defendatzen duen markak. Duela sei urte Getxon sortua, enpresak gaur egun bi denda propio dauzka Bizkaian eta Madrilen eta nazioarteko merkatua konkistatzea lortu du, marka anitzeko denden bitartez Japonian, Ingalaterran eta Frantzian ere dagoela. On-line salmentari ekitea eta egunez egun beren burua berrasmatzeko paregabeko gaitasuna haren garaipenaren gakoetako bi dira.

**PREMIO PROYECTO BIZKAIA CREATIVA**
Artesanal, de calidad y con diseño propio. Así se define Mércules, la marca de accesorios de piel exclusivos y hechos a mano que defiende el lujo asequible. Creada hace seis años en Getxo, la empresa cuenta hoy con dos tiendas propias en Bizkaia y Madrid, y ha logrado conquistar el mercado internacional, estando presente a través de tiendas multimarca en Japón, Inglaterra y Francia. La puesta en valor de la venta online y una hercúlea capacidad para reinventarse día tras día, son dos de las claves de su triunfo.

**EKINTZAILETZA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Enpresa honek menpekotasuna duten pertsonentzat etxeko zainketa-zerbitzu osoa eskaintzen du. Ubikare duela bi urte sortu zen gizarte-osasun sektorean konponbide berriak eskaintzeko eta, jende nagusiak bere etxean bertan bizi eta arreta jasotzeko duen nahiari erantzuna emateko. Haren erronka auto-zainketa, independentzia eta elkar-erantzukizuna sustatzea da, arreta albait gehien pertsonalizatuz. Diseinatu duten softwareak aukera ematen du osasun fisiko, mental eta emozionalaren plan espezifiko bat diseinatzeko, profesionalek gain-ikusia, eta lasaitasun eta segurtasuna ematen die zaintzaileei zein zaindutakoei.

**PREMIO PROYECTO DE EMPRENDIMIENTO E INNOVACIÓN SOCIAL**
Empresa que ofrece un servicio integral de cuidados a domicilio para personas dependientes. Ubikare fue creada hace dos años con el objetivo de aportar nuevas soluciones en el sector socio-sanitario y responder, por ejemplo, a la preferencia de la gente mayor de vivir y ser atendida en su propio hogar. Su reto es fomentar el autocuidado, la independencia y la corresponsabilidad, también personalizar al máximo la atención. Con ese fin han desarrollado un software que permite diseñar un plan específico de salud física, mental y emocional, supervisado por profesionales, y que da tranquilidad y seguridad a quienes cuidan y a quienes son cuidados.

**SPIN-OFF IBILBIDE SARIA**
2013an Bizkaiko zenbait ETEk, industrian 50 urtetik gorako ibilbidea zutenak, BAS sortu zuten. Helburu handi bat zeukaten: mundua leku jasangarriagoa izan dadin lortzea, eta horretarako estrategia jakina: industria lantegien eta energia azpiegituren proiektu osoak garatzea. Taldea osatzen duten enpresek elkar osatzea eta, apurka-apurka, gaitasun tekniko eta finantziero garrantzitsuak dituzten bazkide berriak eranstea funtsezkoak izan dira BASen ibilbidea bizkortzeko. Gaur egun korporazioak 16 herrialdetan lan egiten du eta proiektu eta inbertsio handiei ekin die.

**PREMIO TRAYECTORIA SPIN-OFF**
En 2013 varias pymes de Bizkaia, con más de 50 años de trayectoria industrial, constituyeron BAS. Tenían un gran objetivo: contribuir a hacer del mundo un lugar más sostenible y una estrategia concreta: desarrollar proyectos integrales de plantas industriales e infraestructuras energéticas. La complementariedad de las distintas empresas que forman el grupo y la incorporación, poco a poco, de nuevos socios con importantes capacidades técnicas y financieras, han sido claves para acelerar la trayectoria de BAS. Hoy la corporación trabaja en 16 países y afronta importantes proyectos e inversiones.

**STARTUP IBILBIDE SARIA**
Izandako esperientzia pertsonalaren ondorioz, Wegowen bi sustatzaileek gizarte sare bat sortu zuten 2015ean, beren artista kutunek joko zuten kontzertu eta jaialdiei buruz informazioa partekatzeko. Proiektua bilakatuz joan zen, zuzeneko musikaren sektorean erreferentziako plataforma bihurtu arte. 2016an Nvivo enpresaren %100 eskuratu zuten; 2018an akordio globala egin zuten Airbnb-rekin. Gaur egun 19 herrialdetan daude, milioi t'erdi erabiltzaile lortu dute hilero eta %160 hazkundetasa lortu dute azken ekitaldian.

**PREMIO TRAYECTORIA STARTUP**
La experiencia personal llevó a los promotores de Wegow a crear en 2015 una red social para compartir información sobre los conciertos y festivales en los que actuaban sus artistas favoritos. El proyecto fue evolucionando hasta convertirse en una plataforma de referencia en el sector de la música en directo. En 2016 adquirieron el 100% de la empresa Nvivo; en 2018 cerraron un acuerdo global con Airbnb. Actualmente están presentes en 19 países, han conseguido un millón y medio de personas usuarias/mes, y alcanzado una tasa de crecimiento del 160% en el último ejercicio.




Lankidetza izan zen 2018an BECen burutu zen Bizkaia Enpresa bileraren hari nagusia. Orduko hartan enpresek tamainari dagokionez dituzten zailtasunak gainditzeko eta hazteko loturak ezarri beharra eta lankidetzari laguntza emateko foru programak izan ziren mintzagai nagusia. Halaber, berrikuntza irekiaren egiazko kasuak erakutsi ziren, zeinetan startupek eta eragileek elkarrekin proiektuak burutzen dituzten. Bereziki azpimarratu zen hazkunde burutsua behar dela, enpresak bultzatzen dituena baina ez handienak izatera, baizik eta bezeroari zerbitzurik onena emateko tamainarik egokiena lortzera.

La cooperación fue el hilo conductor del encuentro Bizkaia Enpresa 2018, celebrado en el BEC. En él se habló de la necesidad de establecer vínculos para crecer y superar las dificultades de tamaño a las que se enfrentan las empresas y de los programas forales que apoyan la cooperación; también se mostraron casos reales de innovación abierta en los que startups y tractoras desarrollan proyectos conjuntos. Con ahínco se recalcó la importancia de aspirar a un crecimiento inteligente, ése que impulsa a las empresas no a ser las más grandes, sino a alcanzar la dimensión más adecuada para dar el mejor servicio al cliente.

**Aurreko edizioetan saritutako enpresak**

**Empresas galardonadas en ediciones anteriores**

**2014**
Ariadna Instruments
RDT Engineers
Babcock Valves
Artesanía Graci
CAF Transport Engineering
Grupo Ticketbis

**2015**
DB Iberia
Protec Arisawa
Insertec
Relevo Videogames
Gestamp Tool Hardening
Dynakin

**2016**
CMI
Kautenik
Kuaderno
Venturmoda
ITP Externals
Educaedu

**2017**
Egoin
Permar
Electrorecycler
Cookplay
Irrintzi
Lointek
Euskal Kirol Apostuak

**2018**
Prosertek
Power Quality Control
Lookiero
Sophie et voilà
Fair Saturday
Batz Energy
Efeuve




















## Bizkaiko enpresen hazkundea bultzatuz

## Impulsando el crecimiento de las empresas de Bizkaia

Ainara Basurko

Beazko zuzendari nagusia
Directora general de Beaz

ON Bizkaia sariek seigarren edizioa ospatzen dute 2019an. Sortu zirenetik haien helburua Bizkaiko enpresen berrikuntza-jarduerak, nazioartekotzea eta negozio berriak abian jartzen dituztenen ekintzailetza-gogoa errekonozitzea izan da.

Horretarako, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak eta Beazek diru-laguntza programen bidez bultzatu dituzten proiektuak aztertzen dira urtero, lanpostu berriak sortzen eta fakturazioa handitzen aipatutako proiektuek izan duten inpaktua neurtuz.

Helburua, beraz, Bizkaiko enpresek hazkunderako eta lehiakortasuna hobetzeko erabiltzen dituzten dinamikak errekonozitzea da eta, horregatik, saria hazkunderako apustu horiei laguntzea ematen jarraitzea ere bada, beraien esku jarriz prozesu horiek bizkortzeko lagungarria izan daitekeen aholkularitza espezializatua.

Bizkortze-sari honek aukera eman die enpresa irabazleei zenbait proiekturi ekiteko, kasu gehienetan bi mota handitan sailkatu daitezkeenak: negozio-ildo berriak edota merkatu berriak garatzea. Hau da, alde batetik proiektuen helburu nagusia negozio-eredu osoa garatzea, merkataritza estrategia eta *pricinga* definitzea edo erabakiak hartzeko oinarri bezala *business case* eredua ezartzea da. Beste alde batetik, proiektuon xedeen artean daude: merkatu berrietarako merkataritza estrategia definitzea eta ezartzea, bazkideak, laguntzaileak edota herrialde berrietan sartzeari begira erosi litezkeen enpresak bilatzea, eta frankizia-eredua definitzeko laguntza lortzea.

ON Bizkaia sarien aurreko edizioen bidez Bizkaiko 21 enpresa eta startupi eman zaie laguntza. Bizkortze-sariari esker gehikuntza handia izan dute beren fakturazio eta lanpostu-kopuruan: %172,45 eta %127,93koa hurrenez hurren.

Sei urte geroago ON Bizkaia sariek hasieran zuten filosofia berari eusten diote: enpresen lana errekonozitzea, proiektu berriei ekiteko, berritzeko eta nazioartean zabaltzeko egiten dituzten ahaleginetan, eta jokabide horrek lurraldearen lehiakortasunean duen garrantzi estrategikoa azpimarratzea.

Saritutako enpresak hautatzeko irizpide albait objektiboenak erabiltzen dira. Hala eta guztiz ere, Bizkaia Enpresa bilera bakoitzean, sariak ematerakoan, errekonozimendu hori dinamika hauetan murgilduta dauden hainbat antolakunderi ere egiten diegu.

Urtero 700 proiektu berritzaile inguruk jasotzen dute Aldundiaren laguntza. Proiektuok aurrera eramaten dituzten enpresek, eguneroko lanean, ahalegin handia egiten dute lehiakortasuna hobetzeko, kalitatezko lanpostuak sortu eta finkatzeko eta lurraldearentzat aberastasuna lortzeko. On Bizkaia sariak beraientzat dira!

Los premios ON Bizkaia celebran en el 2019 su sexta edición. Desde su nacimiento han tenido como objetivo reconocer la actividad innovadora de las empresas de Bizkaia, la internacionalización y el impulso emprendedor de quienes lanzan nuevos negocios.

Para ello, anualmente se analizan los proyectos que el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y Beaz han apoyado a través de programas de ayuda, midiendo el impacto que tales proyectos han tenido en la generación de nuevo empleo y en el incremento de facturación.

El objetivo es, por tanto, reconocer las dinámicas de crecimiento y de mejora de competitividad que desarrollan las empresas de Bizkaia, de ahí que el premio consista también en seguir apoyando esos retos de crecimiento, poniendo a su disposición asesoramiento especializado que les pueda ayudar a acelerar esos procesos.

Este premio de aceleración ha permitido que las empresas ganadoras aborden proyectos que, en la mayoría de los casos, pueden catalogarse en dos grandes tipologías: el desarrollo de nuevas líneas de negocio y/o el de nuevos mercados. Es decir, por un lado, los proyectos se centran en el desarrollo del modelo de negocio integral, la definición de la estrategia comercial y *pricing*, o la elaboración del modelo de *business case* como base para la toma de decisiones. Por otro, se trata de proyectos dirigidos a la definición e implantación de la estrategia comercial en nuevos mercados, a la búsqueda de socios, colaboradores y/o empresas para su adquisición para la entrada en nuevos países, o al soporte en la definición del modelo de franquiciado.

A través de las distintas ediciones de los premios ON Bizkaia se ha apoyado a 21 empresas y startups de Bizkaia. El respaldo del premio de aceleración les ha permitido obtener un incremento en su facturación y empleo del 172,45% y el 127,93%, respectivamente.

Seis años después los premios ON Bizkaia siguen manteniendo la misma filosofía que tenían en su origen: reconocer la labor de empresas en su afán por emprender, innovar e internacionalizarse y subrayar la importancia estratégica que esa actitud tiene en la competitividad del territorio.

Las empresas premiadas se eligen basándose en los criterios más objetivos posibles. Eso no impide que, en cada encuentro Bizkaia Enpresa, al otorgar los premios, hagamos extensible ese reconocimiento a un elevado número de organizaciones inmersas en estas dinámicas.

Todos los años son cerca de 700 los proyectos innovadores apoyados por la Diputación. Proyectos de empresas que, en su día a día, trabajan por mejorar su competitividad, crear y consolidar puestos de trabajo de calidad y generar riqueza para el territorio. ¡Los premios ON Bizkaia van para todas ellas!





## Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren programa eta zerbitzuak

## Programas y Servicios del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial

**944 068 008**
**bizkaia.eus**

- **Nazioartekotzea**
- ETEak nazioartekotzeko programa
- Nazioarteko partzuergoak sustatzea
- Bizkaiext: nazioartekotzeko informazio eta aholkularitza
- Euskal enpresak nazioartekotzeko programen eta zerbitzuen gida

- **Internacionalización**
- Programa de Internacionalización de PYMES
- Fomento de consorcios internacionales
- Bizkaiext: información y asesoría en internacionalización
- Guía de programas y servicios para la internacionalización de las empresas vascas

- **Ekintzailetza eta berrikuntza**
- MassChallenge lehiaketa
- Egin eta Ekin programa
- Enpresa proiektu berritzaileak
- Ekintzailetza eta Gizarte Berrikuntza
- Bizkaia Sortzailea
- Inkubagailuak
- 3i Programa
- 2i Plana
- Elkarlanean programa
- Kudeaketa Aurreratuko Kudeabide programa
- Txekeo teknologikoak
- Elkartegiak programa: Elkartegietarako sarbidea
- Elkartegiak eta industrialdeetarako programa: errentamendurako diru-laguntza
- Elkartegiak industrialdeetarako programa: inbertsioetarako diru-laguntza
- Elkartegiak eta Poligono Industrialak: Industria-poligonoak hobetzeko diru-laguntzak
- Lurzorua. Azpiegiturak
- Lurzorua. Gislur

- **Emprendimiento e innovación**
- Competición MassChallenge
- Programa Egin eta Ekin
- Creación de empresas innovadoras
- Emprendimiento e Innovación Social
- Bizkaia Creativa
- Incubadoras
- Programa 3i
- Plan 2i
- Programa Elkarlanean
- Programa Kudeabide de Gestión Avanzada
- Chequeos tecnológicos
- Programa Elkartegiak y Polígonos Industriales: subvención de inversiones
- Programa Elkartegiak: acceso a centros de empresas-Elkartegiak
- Programa Elkartegiak y Polígonos Industriales: subvención de arrendamiento
- Elkartegiak y Poligonos Industriales: Mejora de polígonos
- Suelo. Azpiegiturak
- Suelo. Gislur

- **Talentua**
- Bikaintasunerako prestakuntza
- Espezializaziorako ikasgelak
- Be Basque Talent Network
- Bizkaia.talent

- **Talento**
- Formación de excelencia
- Aulas de especialización
- Be Basque Talent Network
- Bizkaia.talent

- **Errepideak**
- Bidesariak eta laguntza ekonomikoak
- Trafikoari buruzko informazioa
- Bizkaiko errepideak
- Errepideen katalogo bisuala
- Trafikoaren bilakaera

- **Carreteras**
- Peaje y ayudas económicas
- Información sobre el tráfico
- Carreteras de Bizkaia
- Catálogo visual de carreteras
- Evolución del tráfico

- **Artisautza**
- Artisautza sektorearen antolamendua
- Artisautza sektorearen sustapena
- Artisautzarekin zerikusia duten ekitaldiak

- **Artesanía**
- Ordenación del sector artesanal
- Promoción del sector artesanal
- Eventos relacionados con la artesanía

- **Turismoa**
- Aldundiak diru-laguntzak eskaintzen ditu Bilbao-Bizkaia helmuga turistikoaren garapena sustatzeko

- **Turismo**
- Ayudas al desarrollo turístico en destino Bilbao - Bizkaia

- **Beste batzuk**
- Bizikletak
- Bizkaiko zaratari buruzko mapa
- Zarataren arloan ekintza plana

- **Otros**
- Bicicletas
- Mapa del ruido de Bizkaia
- Plan de acción en materia de ruido

## Gure erronketan lagun diren beste erakunde batzuk

## Otras entidades que comparten nuestros retos

**Azpiegiturak**, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari atxikitako foru enpresa publiko bat da eta haren helburu sozialaren barruan hurrengo jarduerak daude:

- Foru azpiegitura eta ekipamenduen lanak proiektatu, eraiki eta ustiatzea.
- Negozio-zentroak, enpresa-instalakuntzak eta azpiegitura eta ekipamendu publikoak sortu eta kudeatzea lanpostuak sortzen dituzten jarduerak garatzeko.
- Interesgarritasun publikoko jarduera ekonomikoak bultzatzeko, eta etxebizitzak eraikitzeko, egoitza-eremuetarako lurzorua eskuratzea eta haren sustapen publikoa egitea.

**Azpiegiturak**, es una sociedad pública foral adscrita al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, cuyo objeto social contempla las siguientes actividades:

- Proyectar, construir, y explotar las obras de infraestructuras y equipamientos forales.
- Crear y gestionar centros de negocio, instalaciones empresariales, e infraestructuras y equipamientos públicos para el desarrollo de actividades generadoras de empleo.
- Adquirir y realizar la promoción pública de suelo para actividades económicas de interés público, así como para áreas residenciales destinadas a viviendas.

**Bizkaia Talent** elkarte pribatu bat da eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen du beste euskal erakunde batzuekin batera, gure Lurraldera berrikuntza eta jakintzaren prozesuan kualifikazio handia duten pertsonak erakarri eta atxikitzeko.

Helburu hori lortzeko, zenbait zerbitzu eskaintzen ditu, besteak beste: Location & BeBasque Dual Career Centre, profesionalak eta euren bikotekideei harrera egiteko; eta unibertsitateetako talentua garatu nahi duen Talentia. Gainera xede horretarako dauden diru-laguntza ekonomikoen programa kudeatzen du.

**Bizkaia Talent** es una asociación privada impulsada por la Diputación Foral de Bizkaia junto con otras organizaciones vascas, con el fin de atraer y retener en Bizkaia a personas altamente cualificadas en el proceso de innovación y conocimiento.

Para conseguirlo ofrece diferentes servicios, entre ellos Location & BeBasque Dual Career Centre, para facilitar la acogida de profesionales y sus parejas, o Talentia, centrado en desarrollar el talento en las universidades. Gestiona también el programa de ayudas económicas forales destinadas a ese fin.

**Seed Capital Bizkaia** mota itxiko inbertsio-erakundeen sozietate kudeatzailea da eta enpresa proiektu berritzaileen garapena finantzatzen du abian jartzeko fasean, horretarako hiru kapital-arrisku funts eta SCR-Pyme bat kudeatzen ditu.

Enpresei ematen dien laguntza finantziazioaren bidez gauzatzen da eta horretarako kapital-arriskuaren ohiko tresnak erabiltzen ditu, hala nola kapitalean partaidetza hartzea edo partaidetzako maileguak.

**Seed Capital Bizkaia** es una sociedad gestora de entidades de inversión de tipo cerrado que financia el desarrollo de proyectos empresariales innovadores en su fase de puesta en marcha. Para ello gestiona tres fondos de capital riesgo y una SCR-Pyme.

En su caso, el apoyo a las empresas se articula mediante la concesión de financiación, utilizando instrumentos clásicos del capital riesgo, como la toma de participación de capital o los préstamos participativos.

Bizkaia
beaz

Sabino Arana, 8
48013 Bilbao
Tel.: 944 395 622

beaz@bizkaia.eus

Informazio gehiago nahi izanez gero, mesedez ikusi

Para más información, por favor, visita

**beaz.bizkaia.eus**

Aurkituko gaituzu:
Búscanos en:

BIZKAIA ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2019

# 2019
# Beaz Bizkaia

Ezkutuko indarra
La fuerza oculta